

NIK DUT AHOA AMONARENA.
BELARRIAK, BERRIZ, AITONARENAK.
BEGIAK, AITAREN BERDIN-BERDINAK.
SUDUR MOTZA, AMARENA.
KOPETA, INORENA EZ.
KOPETA NEURE-NEUREA DUT.
ETA KOPETILUN NAGO. ¹

¹J.K. Igerabide

Oharra: gorputz atala aipatzean, seinlatu. Familiakoen izenak esatean, zutitu.

Beste gaia: GORPUTZA

AMONA ETA AITONA
ASKO DITUT MAITE.
BERAIEKIN BIZI NAIZ
POZIK ORAIN ARTE.

TIK-TAK, TIK-TAK
ORDULARIA.

TOK-TOK, TOK-TOK
AMAREN DEIA.

JAIKI NAIZ ETA
BANOA, AMA.

TOK-TOK, TOK-TOK
ORDULARIA.

TIK-TAK, TIK-TAK
ORDULARIA.²

² Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburua.

AITONA ETA AMONA
AITAREN ETA AMAREN
AITA ETA AMA DIRA. ³

³ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburua.